# 'Krakovia', Goizalde Landabasoren lehen eleberria

**Beraxek bizitako esperientzia batetik abiatuta, umorera jo du idazle bizkaitarrak minaz eta beldurraz aritzeko**

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Aurreko bost liburuetan kronika, ipuingintza, poesia eta saiakera landu ondoren, seigarrenarekin lehen nobela ekarri du Goizalde Landabaso-Etcheverry idazle eta kazetari bilbotarrak. Ereineko editore Inazio Mujika Iraolak gogoratu bezala, 2000.ean 'Korte bat, mesedez'-en «laneko kontuak kontatzen zituen umoretik, eta orain ere umorearen bidetik ekin dio».

'Krakovia'-ren orrialdeetan jaso duen istorioa ez da umorearekin lotu ohi den horietakoa, ospitale batean ingresatuta dagoen pertsona baten bizipen eta gogoetei erreparatu baitie, beraxek orain dela hamar urte bizitako esperientzian oinarriturik: «Liseriketa behar izan dut, hamar urte behar izan ditut ordenatzeko eta kontatzeko. Horretarako asmatu dut unibertso paralelo bat, zeinetan ni ez naizen ni, eta unibertso horretako ahizpari pasatzen zaizkion niri pasatutako zenbait gauza, eta pasatu ez zitzaizkidan beste zenbait».

Dramarako eta batzuetan tragediarako ematen duten gaiak umoretik landu ditu, besteak beste, «umoreari permititu egiten zaiolako bestela konta ezin daitezkeen gauzak kontatzea», eta lagundu diolako «pertsonaia honek bizi duen errealitatea irensgarriagoa egiten».

Protagonista ospitale batean agertuko da, izterrean haragi bizitan daukan zauri larri batekin. Egiden hori erakusten saiatu da, «gorputzak pairatzen duen errealitate hori ere kontatu behar zelako».

Jendea gora eta behera dabilen gela batean zauden bitartean, «zure bizitza publikoa» denez, «isiltasunean aurkitzen du pribatutasuna protagonistak, hori da seguru sentitzeko aurkitu edo aukeratu duen lekua». Hortik helduko dira alegia bere gogoetak.

Eta Krakovia, zertara dator? Batetik, nobela «'Kra' baten kronika da. Denok egiten dugu 'kra' momenturen batean, baina superbibentzia gailentzen da. Egon daiteke mina, egon daiteke beldurra, baina guzti horien gainetik superbibentzia dago, eta protagonistak erabakitzen du bizirik aterako dela». Krakovia da, azken batean, «egoera dramatiko batean pertsona batek aurkituko duen itxaropenerako helduleku bakarra».


Aurrenekoa argitaratu eta 21 urtera heldu da lehen nobela. ARIZMENDI

**KRAKOVIA**
GOIZALDE LANDABASO-ETCHEVERRY

Generoa: Eleberria. Argitaletxea: Erein. Orrialdeak: 170. Salneurria: 17 euro.

Protagonistak badu inpresio hori, baina baditu halaber sentsazio muturrekoagoak. Beldurra du, era askotako beldurrak ditu. «Konpartitzen dugun beste gauza bat da mina, min fisikoa», esan zuen idazleak, eta ezkutuan gordetzen... turari dagokionez, 'Krakovia'-k «bi plano ditu. Batean, hasieratik amaierara abiadura bizian pasatzen dira gauzak. Bestea eleberriaren gorputzean gertatzen da, ospitaleko 'tempoa' du, hor bizitza etenda dago». Bertan daudenak sentitzen dira, editorearen hitzetan, «alboko trenbide batera bideratu» izan balituzte bezala.

# Euskariana será la puerta digital a los fondos de las bibliotecas vascas

R. KORTA

SAN SEBASTIÁN. La Biblioteca Digital de Euskadi, Euskariana, inicia su andadura con la recopilación de los fondos de los repositorios digitales de las bibliotecas vascas para ser «la puerta digital que permita y facilite la búsqueda de cualquier contenido relacionado con el patrimonio cultural vasco en Internet».

El consejero de Cultura y Política Lingüística y portavoz del Gobierno Vasco, Bingen Zupiria presentó ayer en la sede del Archivo Histórico de Euskadi, en Bilbao, Euskariana, que integra fondos digitales de catálogos colectivos (Red de Lectura Pública de Euskadi, Bilgunea, Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico) y repositorios de todo tipo de instituciones. Reúne más de 750.000 objetos multimedia, copias digitales de materiales con soportes muy diferentes: libros, manuscritos, periódicos y revistas, fotografías, materiales gráficos, piezas museísticas, partituras, obras de música y materiales audiovisuales.

En este sentido, las fuentes más importantes de Euskariana son Bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi, Bilgunea, Catálogo Colectivo de Euskadi, Patrimonio bibliográfico digitalizado, y bibliotecas del Parlamento Vasco, de las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, de Vitoria, Bilbao y San Sebastián, y de la Universidad del País Vasco y de Mondragon Unibertsitatea, así como Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Euskaltzaindia o Fundación Sancho el Sabio.

Antoine d'Abbadie y Agosti Xaho fueron los primeros en utilizar el término 'euskarienne' en 1836. Arturo Campión optó por el término Euskariana para agrupar la publicación conjunta de diversos escritos suyos sobre temas vascos editados en periódicos y revistas. La primera serie de 'Euskariana' se imprimió en 1896, la duodécima y última en 1936.

KURSAAL ESZENA
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · GIPUZKOA · DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

DATOZEN IKUSKIZUNAK
PRÓXIMOS ESPECTÁCULOS

MARIZA
"MARIZA CANTA AMÁLIA"
Auditorio Kursaal Auditorioa
En el 20 aniversario de su carrera, y en el centenario del nacimiento de Amália, Mariza rinde homenaje a la gran diva del fado
Azaroa 30 Noviembre / 20:00
40 €



ORQUESTA BARROCA DE SEVILLA
Auditorio Kursaal Auditorioa
Alfonso Sebastián, klabea eta zuzendaria
Conciertos de Brandemburgo nº3-4-5, Bach
Abendua 02 Diciembre / 19:30
30 / 24 / 19 / 15 / 11 €



"MEMORY"
Sala de Cámara Kursaal Ganbera Aretoa
Abendua 11 Diciembre / 18:00
7 € / 3 € (<12 urte)
Euskaraz · 3 urtetik aurrera




OREKA TX
"XARMA"
Auditorio Kursaal Auditorioa
Gabonetan familiartean gozatzeko sorgindutako ikuskizuna
Abendua 26 Diciembre / 19:00
20 €



WWW.SARRERAK.KURSAAL.EUS

Babesleak / Patrocinadores: euskaltel, fundación edp
Laguntzaileak / Colaboradores: elektra, Fundación "la Caixa"
Enpresa Elkartuak / Empresas Asociadas: kutxa, GIROA VEOLIA, herza, telesonic, ArcelorMittal
Komunikabide Elkartuak / Medios Asociados: SER Radio San Sebastián, estrategia, Gipuzkoa, eitb